

DIRU-SARRERAK



Gure enpresaren jarduna hasi ondoren gure diru-sarrerak ikasleen tasa-ordainketak eda gure logodun kamixeten salmentatik ateratako kapitala izango dira. Gure ikastaroak hilabetezka banatzen dira, eta hainbat aukera desberdin eskaintzen ditugu.

“A PLAN”-ak astean ordubeteko saio bat eskaintzen du hilabetean 25€ ordainduz. “B PLAN”-ak, hasiberrientzat gehien gomendatzen dugunak, astean ordu bateko bi saio eskaintzen ditu 40€ ordainduz.

Dantza-ikastaro sakonagoak nahi dituzten bezeroentzat “PLAN BEREZIA” eskaintzen dugu. Hau ikaslearen neurrira eginikoa da, beraz, berak astean behar dituen orduen arabera prestatuko dugu hilabeteroko egutegia eta talde desberdinekin dantza egiteko aukera izango dute ikasle hauek. Orduak 5€ balio du plan honetan, baina hilabetean gutxienez hamar saio izan behar dituzu. Gainera, ikasle bakoitzak 10€-ko matrikulazio-tasa bat ordaindu beharko du.

Gure proiektuaren oinarritzko diru-sarrera klaseen ordainketa izango da. Ikasleek ala hauen tutore legalek zerbitzua hilabetean behin ordainduko dute, epeetan banatu ordez. Gure ikastaroen tasak hilabete amaieran ordaindu beharko dira, bakoitzak erabilitako promozioaren arabera.

Gainera, gure lur zinetikoan dantzarien eta kirolarien oinkadek sortutako energia maiz gure lokalarentzat gehiegizkoa izango denez, soberan dugun energia garbi hau saldu egingo dugu. Prozesu hau oso errea da gaur egun, sarera konektatuz automatikoki behar ez duguna sareari salduko dugulako.

Hasieran, ikastaroak ematen hasi baino lehen, gure proiektua martxan jartzeko inbertsio handi bat beharko dugu diru-sarrera moduan. Honetarako Kutxabank bankuari eskatutako inbertsio bat, gure aurrezkinak eta, ahal izanez gero, Eusko Jaurlaritzak ekintzaile gazte berriek eginiko enpresei ematen dien diru-laguntzetaz baliatuko gara. Hauei esker egin beharreko inbertsioa lortzera iritsiko ginateke.